
ZIKUÑAGAKO ERMITA



Antxon Aguirre Sorondo

ZIKUÑAGAKO ERMITA

Zikuñagako Ama Ermita txikia Hernaniko Zikuñaga auzoan zegoen, Nafarrorako bidean.

Herriko tradizioak dioenez, hau izan zen herriko lehen parrokia. Honen dokumentazio idatzirik ez badugu ere, litekeena da horrela izatea Hernani baserri sakabanatu batzuk besterik osatzen ez zutenean.

Zikuñagako Ama gurtzeko tradizioari buruz aurkitu dugun lehenengo erreferentzia historikoa Jn. Myn. De Arreguiren emaztearen, Maria Oso de Echeberria, testamentuan agertzen den zita bat da. 1529ko irailaren 23an egindako testamendu honetan, bi dukaten donazioa egiten zen San Juan "de Ernany" elizari, **Cicuñagari,** San Martini, Santa Barbarari eta Santa Cruzi. Hau da, hain juxtu, Hernaniri buruzko dokumenturik zaharrenetariko bat.

1529ko urriaren 5ean Martin Arano de Ayerdiren alarguna zen María López de Galarretak testamentua egin zuen, eta bertan zenbait diru kopuru utzi zituen San Martin, Santa Cruz eta Guadalupeko Amari; horrez gain zehaztuta utzi zuen bi errealeko emaria **"Obra y Lumynaria de Nra. Sra. de Cicuñagari".**

Hemendik aurrera ugaritu egin ziren Hernaniko biztanleek beren testamentuetan Zikuñagari egiten zizkioten donazioak. Horrela, 1548an Dña. Elena de Murguía, deitura bereko herriko (gaur egun Astigarraga) biztanle zenak Zikuñagako Amari sei errealeko emaria egiteko agindu zuen. Beste zenbaiten aipamena ere egiten du, hala nola, Guadalupeko Ama, Santa María Magdalena, San Telmo de San Sebastian, Hernaniko San Agustin parrokia eta monastegia, Murgiako Ama eta San Miguel de Salinas besteak beste.

XVI. mendez geroztik maiz agertzen dira idazkietan Zikuñagako Amari egiten zitzaion gurtzen aipamenak, jakin ez badakigu ere noizkoa den tradizio hau.

Ermita eraikinari dagokionez, ezagutu dugunaren ezaugarriek gutxi argitzen digute bere jatorria, askotan izan baita berritua eta berreraikia hasierako estilo artistikoari zegozkion ezaugarriak gorde gabe.

Ama Birjinaren irudia erromanikoa zen, pentsa daiteke XIII. mende bukaerakoa zela. Baina horrek ez du esan nahi hasierako eraikina ere garai horretakoa zenik, litekeena baita irudia garai horretan egina izatea eta urte batzuk geroago ermitan jarria izatea; edo irudi hau zaharrago baten ordezkoa izatea. Kontuak kontu, nabaria da oso antzinakoa dela.

Kondairak dio Zikuñagako Ama Gipuzkoako Zazpi Ama Birjina Beltzetako bat dela eta zazpi ahizpa hauek Ataungo San Sebastian Ermitatik zabaldu zirela probintziako hainbat tokitara. Hauetako bat, Zikuñaga Ama Birjina Beltza hain zuen ere, Hernanira etorri zen.

Luis Murugarren Zamora historialariaren arabera, Alcega jaunak eta bere gizonek, beren kanpaina militarretatik bueltan, Hernanira ekarritakoa.

Baina azter dezagun hau guztia zehaztasun handiagoz.



ERAIKINA

Zikuñagako Ermita Hernanitik, Urumea ibaia zeharkatuta, Nafarrora doan bide zaharrean zegoen. Goialde edo tartazu batean zegoen eraikia: Hernaniko plazatik 2.950 metrotara eta ibaitik oso gertu, inguruan nekatzaritzarako lur sail mailakatuak zituela. Itsas mailatik 52 metrotara zegoen.

Haren ondotik pasatzen ziren burdinola eta Erret Armadaren aingura fabrikarentzat mea, ikatza eta abar eramaten zituzten ibaiko gabarrak; arrantzaleak ere ibiltzen ziren ibai gora eta ibai behera; eta baita txalupa gizon bat ere, xox batzuen truke, Urumearen alde batetik bestera igaro nahi zutenak pasatzen.

Geroago, behin Hernanitik Goizuetarako kamioa eginda, oinezkoentzako xenda bat egin zen Ermita eta kamioa lotzen zituena. Aurrerago xenda hau luzatu egin zen "Biyak-Bat" papelera (gaur egun eroria dagoena) eta Karabel auzoraino. Xenda honek aldapa handi bat zuen, azken ermitariaren arabera, gurdiek zamarik gabe zihoazenean solik igo zezaketena; zamarekin zihozenean, berriz, beste bide batetik joan behar zuten.

Ermitaren inguruan baserri bakarra zegoen, Eziago-errota, herriko dokumentuetan 1418z geroztik aipatzen dena. Ermitaren parean, 50 metrora, Tartazuko-iturria zegoen. Eziago poligonora doan bide gurutzearen ondoan Andolako-iturria zegoen, hobeto esan bi iturri, bata bestetik 10 metrora. Era berean ganaduarentzako aska bat zegoen Ganao-iturria izenekoa (gaur egun Zikuñaga papeleraren bulegoak dauden tokian). Iturri hauek guztiek urte osoan ematen zuten, baita lehorte garai handienetan ere.

Inguruan era askotako zuhaitzak zeuden: gaztainak, haritzak, lizarrrak eta zuhaixkak. Landaren artean intsusa oso ugaria zen eta senda belar bezala maiz erabilia. Adibidez, intsusa lehortu ondoren, lorearekin egindako infusioa burukomina eta katarroa sendatzeko askotan aholkatzen zuten garaiko botikariek; edota intsusak erre ondoren, botatzen zuen kea, enbutu baten bidez, handituak eta bixikak beratzeko ere erabiltzen zen.


Ermita bere sorreran errektangelu formako eraikin apala, 20 m X 7 m-koa, zen. Harribila eta kareorez egindakoa zen eta bi isuriko teilatua zuen. Barrutik paretak igeltsuztatuak edo karesnetatuak; eta hauetan, edertzeko asmoz edo, gorriz pintatutako harlandu faltsuak, desmuntatzean ziurtatu ahal izan genuen bezala.

XVII. mendean bere ezkerraldean erantsi zitzaizkion: serorentzako gela edo serora-etxea (hau egiteko argizulo bat itsutu behar izan zuten), sakristia bat (4,6 m X 4,26 m-koa) eta fatxada berri bat ate dobelatua eta urbedeinkatu-ontziarekin.

XVIII. mendearen erdialdean Ama Birjinari eskainitako aldare nagusia eta alboetan Santo Cristo, San Antonio Abad eta San Sebastianen irudiak zituen.


Ermitak diru-iturri propioak zituen; batetik, maileguan uzten zuen diruak ematen zizkion korrituak eta, bestetik, hainbat lur sailen errentetatik hartzen zuena. Diru sarrera horiekin mantentzen zen. Bere inguruan zituen beste terrenu batzuk serorak edo ermitariak erabiltzeko ziren (izan ziren garaiak ermitaren zerbitzuan, aldi berean, bi serora egon zirenak).

1799ko Desamortizazio Legean oinarrituta, Estatuak ondasun eta lur sail nagusienak enbargatu zituen, eta Amortizazio Kaja izeneko eskutara pasa ziren. Operazio honekin 14.900 erreal jaso zituen.



IRUDIA

Fr. Pedro de Anasagastik, 1970ean Aránzazu aldizkarian argitaratu zuen artikulu batean, Zikuñagako Amaren irudia fintasun handiz definitu zuen:



"Ama Birjinaren aurpegia, eskuak eta oinak beltzak dira. Gainontzekoa berriki urrekoloreztatua izan da, 1949an egindako zaharberritzean. Aurpegiera hobezina, ondo zintzelatua, euritmikoa da. Zintzo eta ezpainak leunki itxita ditu. Bere karantza ederreko aurpegiera dotore, kokots borobila, begi handi eta sudur egokiari harmonia dario. Atentzioa ematen du bere lepo luze, egoki eta ongi eginak. Ama birjina koroatua, bere diadematik huitziak bailiran beherantz egiten duten adats uhinak biltzen dituen mantelina jalgiten da.

Haurra muxu-korokoa, potxoloa, betertz ederrekoa, hazpegi txikikoa da. Ile kiribilduak burua estaltzen dio. Lepo betea. Eskuin eskua gorantz jasoa, maisuen antzera, bi behatz zut eta besteak tolestuak. Begiak bilduak, pentsakor. Gorputzaren goikaldea zurruna; bernak, ordea, modu deserosoan amaren altzoan.

Amak eskuin eskuan granada bat erakusten du. Haurrak ezkerrekoan ludia. (Murugarrenen [illegible]rabera, irudi hau Alcega jaunak hegoaldeko lurraldeetatik ekarritakoa izan zitekeen.)

Zikuñagako irudiak 68 zentimetro neurtzen du".

Irudi honen jatorria dela eta, Luis Murugarren jaunaren teoriaz gain, badaude beste batzuk. Besteak beste, hurrengo hau jaso dugu: Ama Birjinaren irudia dagoen tokitik oso gertu azaldu zen Urumeako uretan, txalupa huts batean. Sineste hau Gipuzkoako beste Ama Birjinen inguruan daudenekin lotzen da: Arantzazukoa (Rodrigo artzainari XV. mendean arantza batzuen gainean azaldu zitzaion), Arrateko Ama edo Junkalekoa; horiek guztiek jatorri misteriotsu edo mitikoa dute komunean.

1954an, parrokiako kabildoak eta herriak hala eskatuta, Zikuñagako Ama Birjina kanonikoki Hernaniko zaindari izendatua izan zen.

1979ko apirilaren 12tik 13rako gauean (Ostegun Santua), norbaitek Ama Birjinaren irudia lapurtu zuen. Hurrengo goizerarte ez zen inor lapurretaz ohartu. Harrezkero, harrapaketaren egiletzaz ez da ezer argitu; ezta irudia non egon daitekeen ere.

Excmo. Sr.:

Atendiendo a la antigüedad, raigambre, renovación del culto y aspiraciones del vecindario, el Ayuntamiento, en sesión que celebró el día 9 de los corrientes, acordó proponer a V.S.I. sea proclamada PATRONA DE ESTA VILLA NUESTRA SEÑORA DE ZICUÑAGA.

Dios guarde a V.S.I. muchos años.

Hernani, 12 de junio de 1954

El Alcalde,

Excmo. y Rvdmo. Sr. Obispo de la Diócesis de SAN SEBASTIAN

Sesión de 9 junio 1.954

" Punto 5º - Terminado el despacho de los asuntos relacionados en el orden del día y previa declaración de urgencia, La Presidencia sugiere, en atención a la antigüedad, raigambre, renovación del culto y aspiraciones del vecindario, se proponga al Excmo. Rvdmo. Sr. Obispo de la Diócesis que NUESTRA SEÑORA DE ZICUÑAGA sea proclamada PATRONA DE ESTA VILLA".

Es copia.

El Secretario,accdtl.,

ZIKUÑAGAKO AMARI KULTUA

Zikuñagako Ama Birjina Beltzari zitzaion debozioa inguruan oso sustraitua zegoen. Gure informatzaileen arabera, gurtzaileak inguruko herri guztietatik etortzen ziren erromes: Oiartzun, Errenderia, Lasarte, Urnieta, Andoain, Tolosa, Ibarra eta Villafranca (gaur Ordizia). Gerra Zibila aurretik oiartzuarrak Zikuñagara etortzen ziren, Urnietan ebanjelioak eskatu ondoren.

Arrantzale eta marinelen artean ere predikamentu handia zuen Hernaniko Ama Birjinak, horren erakusle zen elizbarnean zintzilik ageri zen zinopari ederra. Ez da harritzekoa lurbarneko Ama Birjina bati zitzaion debozio hau, Hernanik itsas portua baitzuen antzina. Jakin badakigu Donostiako arrantzaleek urtero Zikuñagako ermitara erromesaldia antolatzen zutela.

Aldarearen beste aldean mahai bat zegoen non eliztarrek beren "piluminak" edo kandelak jartzen baitzituzten, mesedeak eskatu eta eskertzak egiteko. Ama Birjinaren mantua eskatzen zuenari uzten zitzaion. Hizketan berandu zetozen haurren amak ere joaten ziren ermitara. Serorak haurra aldarearen gainetik pasatzen zuen kredoa eta bi aitagure errezatzen zituen bitartean. Santisimoari jartzen zitzaion kriseiluko olioak oso ondo egiten zuen zilborrestea lehortzeko. Era berean, aldarearen azpian zulo bat zegoen eta bertan sinestunak burua sartzen zuten eta kredoa errezatzen zuten oinazeak kendu edo aurrezaintzeko.

1769an Gipuzkoako Diputazioak probintziako ermiten erregularizazio prozesu bat ireki zuen. Horrekin aktibitate eskasa edo herrientzat errentabilitaterik ez zutenak itxi zituzten.

Hernaniko Alkatetzak ere jaso zuen idazki bat eta bertan eskatzen zitzaion zehatz zezan Hernaniko zein ermita egon zitekeen arestian aipatutako baldintzetan. Abuztuaren 15ean alkateak honela erantzun zuen:

> "En carta de 5 del mes proximo pasado, me dice V.S. informe a su Diputación quantas Hermitas tengo por combeniente suprimir en mi distrito: Que rentas tiene cada una de los que combendria suprimir: De que naturaleza son; y que aplicacion pienso hacer de ellas, exponiendo los motivos que tengo para conservación de las demas Hermitas de mi distrito:
>
> En respuesta devo decir a V.S. que tres Hermitas ay en mi jurisdiccion: la de Nuestra Señora de Cicuñaga, Stª Barbara, el humilladero de Stª Cruz y ninguna de ellas tengo por combeniente suprimir, **por la devocion que a todas ellas tiene el Pueblo de esta Villa y los que de su circumbecindad, especialmente a la de Cicuñaga;** la de Stª Barbara que esta en una eminencia sirve ademas para llamar con la campana cada vez que aya amenaza de truenos o otra nuve de tempestad, para que comienzen las campanas de la Parroquia a lo mesmo y el umilladero de derribo aora dos años para la rectitud del Camino Real de Correos y Coches y se traslado a poco trecho del parage donde estava, haviendo gran resistencia en los vecinos para que no se moviese, ni mudase de su antiguo parage, pero por fin combinieron en la traslacion a donde oy esta, conociendo que importaba poner en rectitud el Camino Real y se ejecuto con lizencias de el Orden de este Obispado y por estos motivos hallo por conveniente la conservacion de las espresadas tres Hermitas...".

Bada beste ikerketa bat Zikuñagako Amari zitzaion kultuari buruz, han egin ziren hainbat errito kontutan hartzen dituena; adibidez, parrokiako bigarren mandatu liburuan 1771ko irailaren 12an Iruñeako Obispoak egin zuen bisitaldi bati buruzko testu bat. Testu honen zortzigarren puntuak honela dio:

> "Item por justas causas, mandamos asi mismo, que se celebre en la Iglesia Parroquial la **Misa Cantada que hasta aqui se celebra en la Hermita de Cicuñaga el dia de la Natividad de Ntra. Sra.**; y que las seis misas rezadas fundadas en la Hermita de la Magdalena se digan tambien en la Iglesia Parroquial exceptuando solamente la del dia de la Santa, que prohivimos absolutamente, el que pueda zelebrarse en estas dos hermitas el Santo Sacrificio de la Misa en dias festibos". (Belztutakoak lan honen egilearenak dira).

Dirudienez, mandatu honek ez zuen eraginik izan; 1784ko ekainaren 17an Iruñeako Katedraleko kanonigoak, D. Joaquín Xabier de Uriz, urte bereko martxoaren 31n eskutitz bat jaso zuen non esaten zuen:

> "... que en los terminos de dha Villa existe una Basilica titulada de Nuestra Señora de Zikuñaga de la que es patrona la misma Villa en la qual se ha celebrado todos los dias festivos y de Precepto el Santo sacrificio de la misa para que la oiesen todos los laborantes que se hallaban ocupados en la construccion de Anclas para el Rey nro. Señor (Dios le gue.) hasta que la ultima visita se mando suspender y por ello le son gravisimos los perjuicios que resultan a los referidos laborantes por q. allandose esta proxima a sus oficinas y siendo muchisimos aquellos tienen que acudir a la Iglesia Parroquial a oirla sin embargo de hallarse vasttantte disttantte de dhas oficinas y de hay resulta que los Maestros y oficiales pierden mucha labor en los dias festibos que se puede trabajar pues muchos dellos se dettienen en el Pueblo ttodo el dia en grave perjuicio de sus inttereses y de las entregas que pidieran hacer los asenttisttas para el mas punttual servicio de S.M.....".

Ondoren, aitatzen da etorritako bisitadoreak ez zuela debekuaren arrazoien berri eman herrian. Hau ikusita, baimena eman zen igande eta jaiegunetako mezekin jarraitzeko.

Santa Kruz eguna, maiatzaren 3a, eta irailaren 14a bitartean asteartero errogatiba mezak izaten ziren, toki guztietatik erruz etortzen zirenek ordainduta. Errogatiben zentzua "harriaren kontra" babestea zen, hau da, kazkabarraldi izugarrien kontra babestea. Hilabete hauetan ugariak izaten ziren eta urte osoko uzta honda zezaketen.

Santa Kruz egun berean, lehenengo meza aurretik, ermitaren aurrean elorria bedeinkatzen zen. Erremu egunean bedeinkatutako elorrio eta erramuarekin gurutze txiki babesle bat egiten zen. Gurutzetxo hauek etxe ateetan jartzen ziren edota babestu nahi ziren soroetan. Soroetan Aszentsio egunean jartzen zen berrogei kredu errezatuz. Horretarako, errezatzen zuten kredu bakoitzeko poltsikoan zeramatzaten berrogei babarrun eta arto aleetatik bat botatzen zuten.

Urtero, irailaren 8an (Gure Amaren Jaiotza eguna) Zikuñagako Amaren festa ospatzen zen solemnitate handiz eta festa giro handian. Bezperatik bertatik hasten ziren ehundaka erromes ermitarako bidean. Egun handi horretan goizeko zazpietan

ematen zen lehenengo meza, eta hamarretan meza nagusia, honetara herriko agintariak etortzen ziren. (1936a baino lehen, zinegotzi bakoitza bere izenean joaten zen; urte horretatik aurrera, meza nagusira korporazio osoa joateko ohitura ezarri zen, horretarako aldarearen ezkerrean eserleku andana bat egokitzen zen).

Meza bukatutakoan, atarian bertsolari, trikitilari eta txistulariak izaten ziren bertara inguratutakoen gozamenerako. Aurrez ez zen ezer antolatzen, urtero modu espontaneoan egiten zen ekitaldi hau. Hau da adibide eder bat ikusteko herriak nola sortu eta eusten dion festa erlijioso-ludikoei.

Dibertimenduak etenik gabeko bi edo hiru egun irauten zuen (neskatxak bakarrik erretiratzen ziren gauerako), eta Echeverriatarrak laguntzen zuten kanpoaldean bonbila pare bat jarriz eta tabernako lanetan.

40. hamarkadatik aurrera, Udaletxeak bere kontura bidaltzen zituen txistulariak, aguazila eta udaltzain bat. Dantzari talde iaioek Ezpata-dantza eta Makil-dantza egiten zuten.

Festa lekuaren inguruan salmenta postu txiki batzuk jartzen ziren. Bertan otarteko, edariak (famatuak ziren botilaren lepoan kanika bat zuten gaseosak), erroskila txuriak, "bolaoak" eta abar.

Festa hauetan oso maitagarria zen pertsonaia bat Josekus izeneko bat zen, urnietarra. Bere izaera atsegin eta adeitsuagatik, sekula eranzten ez zuen txalekoagatik eta antolatzen zituen errifengatik zen ezaguna. Errifa horietako irabazleari (partitzen zituen berrogei kartetatik bat) oparitzen zion erroskila sorta bat, erroskila hauek ohiko postuetan saltzen zirenak baino askoz handiagoak ziren.

Urtero huts egin gabe joaten zen beste bat erroskila eta mahatsa saltzaile bat zen Honek bere salgaiak garraiatzeko zaldi batek tiratzen zuen lau gurpileko gurdi bat erabiltzen zuen.



Ermitariaren tabernan egun handi horretarako oilo salda eta haragi egosia (edo isatsa) prestatzen zuen, eta bertaratutako jendea gonbidatzen zuen hamaiketakoa egitera.

Denborak aurrera egin ahala, festak gorago aipatutako espontaneitatea galdu egin zuen. Gerra Zibilaren ondoren, zehaztasun osoz antolatzen ziren eta inprobisazioari atea itxi egin zitzaion.

Zikuñagako Amaren eguna lanegunarekin tokatzen bazen, hurrengo igandean ospatzen zen. Meza goizeko zortzietan ematen zen eta arratsaldeko lau eta erdietan Udal Musika Bandak jotzen zuen. Sei eta erdiak eta zazpiak bitartean Angelusa errezatzeko etenaldia egiten zuten eta bederatzietan jaia bukatu egiten zen.

1930-1932 aldera, Hernaniko Udaletxeak Zikuñagan Euskal Jai bat antolatu zuen. Bertan bi mila inguru lagunentzako bazkaria eman zuen eta Txirrita, Frantsesa, Lujambio eta Saiburu bertsolariek alaitu zuten otordu hau beren bertso emanaldiarekin.

ERAISPENA

AURREKOAK

Iñaki Iruinen lan bikainari esker, ezagut ditzakegu pauso pauso Zikuñagako ermitaren eraispena aurrekoak. I. Iruinek, Egin egunkarian argitaratu zen LA ALARGADA SOMBRA DE LA VIRGEN DE ZIKUÑAGA izenarekin, egindako ikerketan argi azaltzen du gipuzkoar kleroa eta Zikuñagako papeleraren arteko tirabirak. Papelera honek Hernaniko eraikin historiko-artistikoaren inguruko lur-sailak aislatu eta azkenean bereganatzea zuen helburu.

Ez zen kasualitatea, enpresak 1949ko azken hilabeteetan ermita eta Goizueta lotzen zituen kamioa "Herri erabilerako ondasuna" izendatzea eskatu izana. Horrela izan zedin erabaki zuen Hernaniko Udaletxeak 1950ko martxoaren 7an.

Baina 1973an Zikuñagako papelerak bidea desegin zuen inori inolako kontsultarik egin gabe, agian konpentzearen kontrako azpijokoa eginez; bideak Biyak-Bat papeleraren ateetaraino iristen baitzen. Udaletxeak Iruñeako administrazioarekiko auzibideetarako salan bere eskubideak baliatu zituen. Honek 1973ko azaroaren 3an bere aldeko sententzia eman zuen, herri erabilerako ondasun izaera onartuz. Zikuñagako papelerak auzitegi gorenaren aurrean errekurritu zuen sententzia, baina ebatziaren berri ez zen informatu.

1974ko uztailaren 4an Hernaniko Zaindaria jasotzen zuen ermitaren saleroskeeta eskrituratu zen. Donostian bizi eta Iruñeako notarien elkargoko notarioaren, Jose Areitio Arizvanarreta jaunaren aurrean azaldu ziren: Papeleraren izenean Jaime Echevarría Abona jauna eta Jose Elgarresta Iturbe jauna, Donostiako elizbarrutiko bikario nagusia. Notarioak biei aitortu zien eskriturak sinatzeko legezko alhamena.

Bikarioak idazkian adierazten du Donostiako elizbarrutiarena dela betidanik, nahiz eta ez duen dokumentazio bidez justifikatzen eta ez dagoen jabetza-errejistroan inskribatuta.

Salerosketa-gaiak 1.821 metro karratu zituen. Ermita bera ez zen salerosketan sartzen, esaten zen bakarra zena lur sail horren barruan Zikuñagako ermita eta etxebizitza bat zegoela; beraz, segurutzat ematen zen lekuz aldatua izango zela; gainera, elizbarrutiak Hernaniko parrokiaren terrenoen eskumena hartu zuen; terreno horiek 1928ko urriaren 23an Maria Urrutia Ezkurrak utzi zizkion notario aurrean Hernaniko parrokiari.

Gai honen argitasun eza oso agerian geratu zen ermita saltzeko modu ilunean: etxebizitzaren besterenganaketa eta terrenoen salerosketaz hitz egiten baitzen.

Irakurleak bere ondorioak atera ditzan, bere horretan doa Donostiako elizbarrutiak eta Zikuñagako papelarak sinatu zuten salerosketa kontratuaren puntuak:

> "Primero: Don José Elgarresta Iturbe en nombre y representación de la Iglesia Católica en su Diócesis de San Sebastián, vende y tramita a la Sociedad Papelera Guipuzcoana de Zikuñaga, S.A. a nombre de la cual acepta Don Jaime Echevarría Abona, las fincas descritas en los antecedentes primero y segundo de esta escritura, con cuantos usos, derechos y servidumbres les corresponden y en la situación de cargas y ocupación que consta en la parte expositiva.
>
> Segundo: El precio de la enajenación es la suma de siete millones setecientas cuatro mil pesetas, de las cuales un millón ciento cincuenta y cinco mil seiscientas pesetas corresponden al valor de los terrenos vendidos; un millón de pesetas a la vivienda enajenada y cinco millones quinientas cuarenta y ocho mil cuatrocientas pesetas para los gastos de traslado de la ermita.
>
> Tercero: El señor Elgarresta se compromete y obliga a realizar las obras de demolición de la actual ermita existente sobre la finca descrita en el antecedente primero y enajenada, comenzando las obras en plazo no superior al primero de octubre de 1975 y terminarlas para el dia primero de octubre de 1976.
>
> Cuarto: Don José Elgarresta tal como actúa, manifiesta que por virtud de la precedente compra-venta quedan extinguidos todos los derechos de propiedad de servidumbre o de cualquier otra clase personal o real de los que pudiera ser titular la Ermita de Zikuñaga, sobre los caminos que figuran en el plano llamado del Ingeniero Jadraque del año 1915 que une como anexo a esta escritura: así como de las transformaciones que hayan podido sufrir posteriormente y de modo especial el camino transversal directo desde la ermita a empalmar con la carretera Poligono Industrial Eziago, que aparece en color azul.
>
> Quinto: La Sociedad Papelera Guipuzcoana de Zikuñaga, S.A., mediante su representante en este acto, tolerará el paso de los fieles por dicho camino coloreado en azul en el expresado plano en tanto la ermita sea utilizada para el culto, sin perjuicio de tolerar también el paso para otras obras de derribo".

Honi beste dokumentu bat eransten zaio non Donostiako gotzaiak elizbarrutiko bikario nagusia, Jose Elgarresta jauna, baimentzen duen terreno batzuen salerosketa-

taren dokumentu publikoa sinatzeko. Horrela, terreno horiek, Zikuñagako ermitarenak zirenak alegia, 1974ko ekainaren 15ean Zikuñagako papelerarenak izatera pasa ziren.

Dokumentu hauen irakurketarekin oso argi geratzen da elizbarrutiak inorekin kontatu gabe, ez Udaletxea eta are gutxiago herritarrak egin zuen terrenoen salmentaren operazioa.

Baina akordiaren sinaketaren biharamonean, hau da, 1974ko uztailaren 5ean, herrian zurrumurruak zabaldu ziren ermitaren salmenta eta lekuz aldatzea zirela-eta. Berehala Udaletxea harremanetan jarri zen Elgarresta jaunarekin eta hurrengo egunerako egin zuten zita. Bildu ziren Elgarresta jauna, alkate ordea eta idazkaria eta hauek galdetu zioten:

– Egia al da, Don Jose, Zikuñagako Ama lekuz aldatuko duzuela?

Eta apaizak erantzun zuen gauza burutua zela, bezperan sinatu baitzuten terreno berrien erosketaren eskritura; eta terreno horietan berkokatuko zela ermita. Gainera, esan zuen leku aldatze egitasmoa hamaika urte atzetik zetorrela, hain zuzen, bera Hernaniko parrokoa zen garaitik. Parrokoa zen garai horretan eta D. Lorenzo Bereziartua gotzaiaren bisita batean biek atera zuten ondorioa izan zen: ermita itxaso industrial baten erdian zegoen irla bat zirudiela eta hobe litzatekeela lekuz aldatzea. Ondoren Elgarresta jauna Donostiako Santa Maria elizako parrokoa izendatu zuten eta asmo hori bere horretan geratu zen 1973 arte.

Alkateak zur eta lur geratu zen izkutuan egindako operazioaren berri izan zuenean, eta galdetu zuen ea nork hartu zuen parte terreno berrien erosketaren sinaduran; Kanonigoak Cándido Otxotorena eta bere izena eman zituen, nahiz eta biek gotzaintzaren agindupean aritu zirela zehaztu.

Horrela kontatzen du I. Iruinek bere artikuluan egun horretako, uztailaren 5eko, elkarrizketa udaletxekoen eta apaizaren artekoa:

> "Ante la pregunta de si de habían desarrollado los trámites de compra de terrenos, el señor Elgarresta contestó que tenían una Comisión de Obras para las necesidades eclesiásticas de la que forma parte Don Cándido Otxotorena. El asombro fue aún mayor para los representantes del Ayuntamiento.
>
> También les dijo Elgarresta que, por motivos de situación y procurando mantenerlo en el mayor silencio, Don Cándido Otxotorena había llevado a efecto otros contactos con el Caserío Altzea a pesar de que tenía la opción de compra para los terrenos del Alto de Andola. Sin embargo, estos contactos no fructificaron aun cuando, en una comida del 15 de mayo de 1974 en el bar Izaguirre, el silencio quedó roto al preguntar el señor Párroco de la localidad a su propietario (del Caserío Altzea) sobre tan buena operación que iban a realizar con la que cobrarían unos buenos millones y por otra parte le ponían la ermita cerca del caserío.
>
> Conocido el lugar de ubicación y al hablar de millones, preguntaron al señor Elgarresta otros pormenores: ¿De dónde salía tanto dinero y con tanta facilidad (se habló de 5 millones a más de una parcela o campa de unos ocho mil metros) en estos días en que los altruistas no existen?

Elgarresta contestó que era una operación de la Papelera de Zikuñaga con el Obispado y que la Papelera había demostrado gran interés por trasladar la ermita".

Baita ere galdetu zitzaion apaizari ermita eta Goizuetako kamioa lotzen zituen bideari buruz. Honek esan zuen azaletik ezagutzen zuela gaia eta honen inguruan Otxotorena itaundu zuela salerosketaren tratuan zehar eta Otxotorenak erantzun omen zion ez zuela ia garrantzirik egindako tratuarekin konponduta zegoela eta gainera ermitarentzat toki hobea eta baldintza ezin hobeak lortu zituztela.

Galdetu zitzaionean ea zergatik gotzaintzak eta berak, bikario nagusi bezala, eraman zuten gaia hain ezkutuan eta Udaletxearekin batere kontatu gabe (normala litzatekeena Hernaniko Zaindaria izanda eta betidanik gurtutako Ama Birjina), Elgarrestak erantzun zion gaia elizaren asunto propioa zela. Halere, harrituta zegoen elizako autoritateen artean gehiago eztabaidatu ez izanagatik.

Bi egun geroago Udaletxe osoaren aurrean, ezohiko bilkuran, elkarrizketen akta irakurri zen eta ahobatez onartu zen:

"1º Hacer llegar al señor Obispo de la Diócesis el desagrado y oposición del Ayuntamiento al traslado de lugar que ocupa la Ermita de Zikuñaga.

2º Hacer la oportuna consulta a la Dirección General de Bellas Artes sobre si es posible realizar este traslado al tratarse de un edificio de una gran tradición histórica local vinculado al pueblo de Hernani y Patrona de la Villa.

3º Solicitar la información necesaria para conocer cómo se han desarrollado las gestiones de venta y compra de nuevos terrenos para ubicar la ermita, así como las razones que se han tenido en cuenta para tomar tal decisión y que hasta el momento no han sido conocidas por el Ayuntamiento y el pueblo de Hernani.

4º Estudiar la posibilidad de adquirir la ermita actual por el sistema de expropiación forzosa al tratarse de un monumento local.

5º Para el caso de que se llevara a efecto tal traslado, gestionar que se desmonte la actual ermita piedra por piedra al objeto de conservar el edificio original.

6º Recoger en el Ayuntamiento cuantas opiniones se manifiesten en relación con dicho traslado y apoyen la postura del Ayuntamiento, que informará de la ejecución de los acuerdos transcritos".

Gotzaiak, abuztuaren azken egunean egindako bilera batean elizak hartu behar zuen posturaz hitz egin ondoren, udaletxeari erantzun zion ermita ez zegoela kulturako oso toki egokian, eta jakin izan balute halako interesa zegoela udaletxearen eta herritarren iritzia eskatuko zutela. Eta gotzaiak aukera aprobetxatu zuen ermitaren egoera txarra udaletxeari egozteko, honek ermita inguruan neurrigabeko hazkunde industriala baimendu zuelako. Gaineratu zuen beste ermitetan bazirela eliztarren kofradiak zeintzuek ermitak babesten eta zaintzen zituzten duinki, eta honelakorik ez zela Zikuñagan. Azkenean, erositako Andola baserriko terrenoen (8.000 metro karratu) balioa 2.400.000 pezetatan zifratu zuen; eta honi gehitu behar zitzaion 5.304.000 pezeta, ermitaren trasladorako banku batean garantia moduan depositoan zeudenak.

1974ko irailaren 2ko idatzi honi Udaletxeak urriaren 10ean erantzun zion, bere haserrea argi azalduz. Korporazioak ez du zalantzan jartzen elizbarrutiko borondate ona, baina gogorarazten du zerbait gehiago behar dela oso lotuak eta sustraituak dauden tradizioak, sentimenduak, azken finean, herriaren historia darabilgunean, hauek herriak jasotzen eta gordetzen baititu. Era berean, ez du onartzen ermitaren egoerak ez duela laguntzen errezorako; horrela balitz, hiriek, karreterak, trenbideak eta lantegi industrialek janda izan diren eliza, parrokia eta ermitekin bukatu beharko bailitzateke.

Udaletxeko ordezkarientzat, eta zer esanik ez herritarrentzat, gotzaintzaren jarrera oso diruzalea zen, oso urruti operazioa burutzeko emandako arrazoi erlijiosoetatik.

Udaletxeari egotzi zitzaion ermita itotzearen akusazioak erabateko erantzuna merezi izan zuen.

> "El Ayuntamiento de Hernani no ha permitido el establecimiento de instalaciones industriales contiguas a la ermita, sino que, además, se ha opuesto a las construcciones sin licencia realizadas por la Empresa Papelera Guipuzcoana de Zikuñaga, S.A.que ha culminado su actuación con la ocupación hasta hacerlo desaparecer del camino de acceso a la misma, situando instalaciones también sin licencia, lo que ha dado lugar a un expediente de reivindicación del camino público fallado a favor del Ayuntamiento...Con ello queda más que probado que esta Corporación ha venido defendiendo a su Patrona por encima de intereses económicos o de cualquier otro tipo".

Hemendik aurrera gaia publiko egin zen, eta irailean bertan trasladoaren kontrako 1.304 sinadura jaso ziren.

Hiru urte geroago, berriro hasi zen Udaletxe eta gotzaiaren (garai honetan D. José María Setién) arteko eskutitz trukaketa, alde bakoitzak bereari tinko eutsiz.

Eziago poligonotik ermitara zihoan bidea ere desagertu egin zen 1982 aldera Udaletxeak eta Papelerak egindako terrenoen permuta baten ondorioz. Horrela, lortu zen ermita baztertuago geratzea eta eliztarrei hara iristea oraindik gehiago zailtzea.

1981ean papelerak bidea lortzeko oso interes handia azaldu zuen. (Honek pentsarazten du gorenak Udaletxearen alde emandako sententzia ezagutzen zela). Hainbat diru kopuru ibili ziren eta udaletxeko arkitektuak toki berria estudiatu zuen, nonbait jada ez zen Andolako terrenoetan, ibaiaren bestaldean baizik, Iparburu baserrian.

Udaletxearen proposamena honako hau zen: bidea saldu eta diru kopuru bat eskatu papelerari gaia auzian zegoen bitartean papelerak egindako erabilera okerragatik; fabrikari eskatu utzitako terrenoaren ordez sesio biderik ez zuen beste terrenoren bat; baita ere Eziagotik barrena bide alternatibo bat, eliztarrak fabrikaren aurretik pasa gabe ermitara joateko.

Apaizak gotzaiarengan delegatu zuen, berak ez baitzuen konpetentziarik.

AZKEN MEZA

Zikuñagako ermitan egin zen azken eliz funtzioa 1985ko irailaren 10ean, asteartea, goizeko zazpietan izan zen.



Meza hasi aurretik aulki guztiak okupatuta zeuden eta gutxi gora-behera hamabi lagun zutik egon ginen. Gizonezkoen halako bi emakume ziren bertan eta ia denak jaunartzera aldarera hurbildu ziren.

Ofizioa erabat euskaraz eta kantatua izan zen eta Hernaniko parroko berak eman zuen. Ez zen homiliarik izan. Meza bukatutakoan, Agur Jesusen Ama kantatu zen. Pertsona batzuek ezin izan zieten malkoei eutsi: Echeverriatarrak (azken ermitariak), eta batez ere emakumea lur jota zegoen.

Eliz ospakizuna bukatu zenean, apaizak eliztarrak aldarera gonbidatu zituen irudi sakratuarekin azken argazkia ateratzeko.

Papelera Guipuzcoanak egitasmoaren tramiteekin jarraitzen du eta 1986ko abenduaren 13an Zikuñagako ermitaren fatxada eraisteko eta beste toki batera aldatzeko eskaera egin zuen:

MEMORIA

PAPELERA GUIPUZCOANA DE ZIKUÑAGA, S.A., ha mantenido conversaciones con representantes de la Iglesia y de ese Ayuntamiento, y como resultado de las mismas, esta Empresa se comprometió a realizar por su cuenta el desmontaje de la fachada de la Ermita de Zikuñaga, de tal forma, que pueda ser reconstruida piedra a piedra en su nuevo lugar de emplazamiento, conservando íntegramente su aspecto cultural, por lo que se desmontarán cuidadosamente numerados y sin daño todos los elementos constructivos que componen la citada fachada.

Como anejos a esta Memoria se adjuntan los documentos siguientes:

Documento nº 1. Plano general de situación, en el que en escalas 1:10.000 y 1:5.000, se indica el emplazamiento futuro.

Documento nº 2. Plano del nuevo emplazamiento a escala 1:500.

Documento nº 3. Plano de la situación actual de la Ermita y edificios anejos a escala 1:100.

Documento nº 4. Plano en el que a escala 1:100, se sugiere un anteproyecto de la nueva Ermita, de acuerdo con las indicaciones sugeridas por la Iglesia y el Ayuntamiento de Hernani.

Documento nº 5. Fotografías de la situación actual de la Ermita.

Sirva este documento para solicitar autorización para iniciar los trabajos de marcado, desmontaje y almacenamiento de la citada fachada, con objeto de que en el momento oportuno puedan ser recuperadas para la fachada de la nueva Ermita, de modo que ésta pueda tener un aspecto idéntico a la existente.

Si el plano que adjuntamos, como anteproyecto para la construcción de la nueva Ermita (Documento nº 4), fuese aceptado por la Iglesia y ese Ayuntamiento, el Arquitecto seleccionado redactaría el proyecto definitivo de la construcción de la nueva Ermita, y como es preceptivo y de acuerdo con la =Ordenanza Reguladora de Licencia de Obras= sería tramitado legalmente para su presentación a ese Ayuntamiento y su posterior aprobación.

Hernani, 13 de Diciembre de 1986

Fdo.: D. Jaime Echevarria Abona

Sinaduraren gainean papeleraren logotipoa dago. Logotipo hau eraistea eskatzen zen Zikuñagako ermitaren aurreko perfila da.


ERAISPENAREN EGUNEROKOA

1987ko ekainaren 23an. Hernaniko Udaletxeak, Hirigintzako batzorde informatiboak hala eskatuta, baimena ematen dio Zikuñagako papelerari ermitaren fatxada desmontatzeko eta ermita eraisteko hurrengo baldintza hauekin: Ermita oso-osorik berreraiki beharko da; desmontaketa piezaz pieza egingo da eta hauek bakoitza zenbaki batekin jasoak izango dira toki seguruan ermita berreraiki arte; 3.000.000ko kopurua jarriko du behar bezalako desmontaketaren garantia modu; azkenik, ondo irizten zaio toki berriari, Don Eusebio Iraolak proposatutako egitasmoarekin bat eginez.


Uztailaren 1a. San Juan Bautistako parrokoak eta Papeleraren ordezkariak ofizioak erretiratzen dituzte.

Uztailaren 2a. Operazioa egiteko abal ekonomikoa aurkezten da.

Uztailaren 3a. Ostiral honetako goizeko zortzietan hasten dira harriei zenbakiak jartzen eta fatxada desmontatzeko beharrezkoa den aldamiajea jartzen. Kontu handiz kentzen dira berrerabil daitezkeen teilak; horrela, Molina jaunaren arabera, ermita berria eraikitzen denean, teila hauek jarriko teilatuan aintzinatasun itxura emanez.



Uztailaren 4a. Lehen orduetan kentzen dira kanpaia eta burnizko gurutzea. 11:30etan espadañaren lehen harria kentzen da, aldi berean induskailu batek harlan-kaitzezko bazterreko hormak botatzen ditu.





Uztailaren 6a. Ekainaren 23ko akordiaren zabaltzearen ondorioz, Udalak papelarari jakinarazten dio erispen eta desmontaketak egiten direnean, beharrezkoa dela Diputazioko Ondaren Historiko-Artistikoaren Zuzendaritzak ezinbestekoa ikusten duen kontrol arkeologikoa egitea. Papelerak ez du ofizialki honen berri izango uztailaren 8a arte.

Uztailaren 7a. Eraispena burutzen da.

Uztailaren 8a.Ordu batean zikuñagako papelerak giza-hezurrak azaltzen zirela jakinarazi zuen. Udaletxeak eta Foru Aldundiak Don Francisco Echeverria Gabilondo, Aranzandiko kidearengan delegatzen du tokiaren behaketa eta egun horretan bertan ematen zaizkio aurkitutako hezurrak. Oso seguru ez badakigu ere, seguenik Altzega baserriko morroi batenak lirateke.

Uztailaren 9a. F. Echevarriaren aurrean aldibereko bi kata ermitaren eskuinaldean eta da ezer berririk aurkitzen. Udaletxea eta Foru Aldundia jakinaren gainean jartzen dira.



SAN JOAN KONPARTSAREN OHARRA:

1989z geroztik Hernaniko udaletxearen eskutan dago, Antxon Aguirre Sorondok egindako "La Ermita de Zikuñaga" lan zabal eta interesgarria.

Udaletxea lan hori argitaratzea gonbidatzen dugu.

EGUNGO EGOERA

Orain urte batzuk, gure herriko lagun talde bat bildu eta Zikuñagako Ermita beriz eraikitzeko batzorde bat osatzea erabaki zuen.

San Joan Konpartsa batzorde honekin harremanetan jarri da egungo egoeraren berri biltzeko.

Honen jarraian doa "Zikuñagako Ermitaren aldeko batzordeak" egin digun idatzia.

ZIKUÑAGAKO AMA, HERNANIKO ZAINDARI

Batzorde honentzat ez da batere atsegina, ez eta gaiak arduratzen duen edonorentzat ere, irtenbide baten bila ahaleginen bat egiten den bakoitzean argitasun izpirik ez ikustea. Gure ustez, herri honentzat eta Zikuñagako Ermitaren aldeko batzordekideontzat oso goresgarri den ahalegina baita.

Gure ustez, hainbatetan esan dugun bezala, ermita izatea edo ez izatearen arazoa konpondu nahi duten hernaniar guztion baitan dago; arazo hori, modu batera edo bestera, zerbait esan dezaketenen aldetik geratua dago.

Baieztatu dezakegu, oker handirik gabe, idazkiak baititugu; oztoporik handiena Hernaniko Parroko jaunaren aldetik dugula.

Ez dakigu zergatik, baina interes berezia du nahi honetan parte ez hartzeko, bere nahia ere izan behar lukeenean; bestalde, duen kargua kontutan hartuta, auzi honetan garrantzitsuena.

Ulertu ere ez dugu ulertzen bere jokaera, konponbiderako aurrerapausu izan daitekeen guztia mozteko jarrera azaltzen baitu, jakinda jarrera horrekin gaiaren argitasuna oztopatzen duela.

Eta hori gutxi balitz, une hauetan zirkunstantzia bereziak daude, Gotzain jaunak, 1998ko urriaren 26ko idatzian azaltzen digunaren arabera, gaiaren konponketa zailago eta ia ezinezkoa egiten dutenak.

Zer egin dezake Batzorde honek? Utzi? Hori egingo bagenu, utziezinezko uste dugun zerbaiti uko egitea izango litzateke.

Ezagunak ditugu aurkitu ditugun zailtasunak eta baita izango ditugunak ere. Hala ere, gure ahaleginaren fruitua ikusiko dugun esperantza dugu.

Herriak berak lagundu beharko digu, eta horretan konfidantza dugu. Horregatik eskatzen diegu herritarrei parte har dezaten eta eskatzen duguna lortzen lagun diezaguten.

Eskerrik asko bakoitzak bere neurrian egin eta eman dezakeenagatik.

Hernani, 1999ko ekainaren 4an

ZIKUÑAGAKO ERMITAREN ALDEKO BATZORDEA

San Joan Konpartsa, 1999ko ekainaren 27

ERMITA DE ZIKUÑAGA

La pequeña ermita de Nuestra Señora de Zikuñaga se encontraba en el barrio del mismo nombre en la villa de Hernani, en la carretera que conduce a Navarra.

Según la tradición popular, fue ésta la primitiva parroquia de la villa. Aunque no consta documentalmente, es muy posible que así fuera cuando Hernani se reducía a una serie de caseríos dispersos.

La primera referencia histórica que hemos encontrado sobre el culto a la Virgen de Zikuñaga, es una cita aparecida en el testamento de doña "maria oso de echeberria mujer de Jn.Myn. de arregui" con fecha 23 de septiembre de 1529, por la que se donaban dos ducados a la iglesia de San Juan "de Ernany", a **Cicuñaga,** San Martín, a Santa Bárbara y a Santa Cruz. Es éste además uno de los documentos más antiguos relativos a la vecindad de Hernani.

Días más tarde, el 5 de octubre del mismo 1529, testa María López de Galarreta, viuda de Martín Arano de Ayerdi, diversas cantidades a San Martín, Santa Cruz y Nuestra Señora de Guadalupe, amén de dos reales a la **"obra y lumynaria de nra.sra. de cicuñaga"**. A partir de esa fecha se multiplican las donaciones a Zikuñaga en los testamentos de los vecinos de Hernani. Así por ejemplo, en 1548 Dña. Elena de Murguía, natural de la villa del mismo nombre (hoy Astigarraga), donó a la Virgen de Cicuñaga seis reales, nombrando además en su última voluntad a la Virgen de Guadalupe, Santa María Magdalena, San Telmo de San Sebastián, la iglesia parroquial y el monasterio de San Agustín de Hernani, Nuestra Señora de Murguía y San Miguel de Salinas, entre otros lugares de culto.

Toda vez que a partir del siglo XVI, pero no antes, se cita ya profusamente la adoración a la Virgen de Zikuñaga –que los antiguos amanuenses escribían Çicuñaga–, queda por saber desde dónde se remonta esta tradición.

En lo que se refiere al edificio, sus características poco o nada decían de su origen, ya que la ermita fue varias veces remozada y reconstruida sin que se conservara elemento alguno que indicara su estilo artístico primitivo.

La imagen objeto de veneración era de rasgos románicos, pudiendo datar de finales del siglo XIII. Pero ello no quiere decir que el edificio original fuera de esa época, pues tal vez la talla se ejecutara en ese tiempo y puesta aquí años después, o que la imagen postrera fuera sustituta de otra más antigua. Aun así, sea como fuere, su antigüedad es manifiesta.

La leyenda dice que la Virgen de Zikuñaga era una de las "Siete Vírgenes Negras de Guipúzcoa", hermanas todas que un día salieron de la ermita de San Sebastián de Ataun para dispersarse por diferentes puntos de la provincia. Una de ellas, precisamente la **Zikuñagako Ama Birjin Beltza** vino a instalarse en Hernani.

El historiador D. Luis Murugarren Zamora apuntaba la posibilidad de que la imagen la trajese a Hernani el señor de Alcega y sus hombres, al regreso de sus campañas militares por tierras meridionales.

Pero estudiemos todo ello con más detenimiento.



EL EDIFICIO

A la salida de la villa de Hernani, una vez atravesamos el río Urumea, sobre el viejo camino a Navarra se encontraba la ermita de Zikuñaga. Estaba asentada en un tartazu o altozano plano, a 2.950 metros de la plaza de Hernani y muy cerca del río, con terrenos adyacentes escalonados para la labranza (entre metro, y metro y medio de escalón). A 52 metros sobre el nivel del mar.

A sus pies pasaban las barcazas fluviales con mineral, carbón o bastimentos para las ferrerías y fábricas de anclas de la Armada Real. Navegaban también los pescadores río arriba o en dirección al mar, y un barquero a cambio de algunas monedas cruzaba a los caminantes de una a otra orilla del Urumea.

Posteriormente, una vez construida la carretera de Hernani a Goizueta, se abrió un sendero peatonal que comunicaba ésta con la ermita, prolongado más adelante hasta la Papelera "Biyak-Bat" (hoy en ruinas) y el barrio de Carabel. Tenía este camino una pendiente muy inclinada que, según palabras del último ermitaño, los carros sólo subían cuando iban vacíos de carga, teniendo que dar un rodeo en caso contrario.


